

**ESKOLAZ KANPOKO
EKINTZAK**

2025-2026



ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

Hezkuntza bide luzeko bidaia da. Horregatik, bidai zoragarri honetan ematen dugun urrats bakoitzean, kalitatea eskaintzeak kezkatzen gaitu.

Ikastola ekosistema baten modura ulertuta, giro eta balio osasuntsuak zabaltzea da gure betebeharr nagusia. Edozein hezkuntza esparrutan, momentutan edo ekintzetan, gure balioak Bizi-bizian transmititu nahi ditugu. Horrela, aipatutako esparru anitzen horietako bat eta ekosistema horren funtsezko zatia Eskolaz Kanpoko Ekintzak direla esan genezake.

Urtero saiatzen gara alderdi horri kalitatea eta hurbiltasuna gehitzen. Gozatzea eta ikastea eskutik doaz. Etxeko txikienak horren lekuko izatea nahi dugunez, 2022-2023 ikasturterako eskolaz kanpoko aukera ezberdinak aurkezten dizkiuegu.

BIZI-BIZIA

ARAUAK

Zerbitzu guztietako izen-emateak ikasturte osorako egingo dira. Altak maiatzeko izen-ematearen bidez egingo dira, eta izena eman duten haurren arabera horietako zein aurrera ateratzen diren jakinaraziko da. Gutxienez 8 pertsona egon behar dira jarduerak egin ahal izateko.

Ikastaroan zehar altak egin ahal izango dira, tokirik badago, eta hilaren lehenengoan hasiko dira beti.

Baja-eskaera bat onartu behar izanez gero, hilaren azken egunean baino ez da emango, eta 10 egun lehenago jakinarazi beharko da (hilaren 20a baino lehen). Familiaren batek baja hartu nahi badu, adibidez, apirilaren 15ean, hilabete osoa kobratuko zaio.

Prezioak aldatu egiten dira eskolaz kanpokoaren arabera, eta urritik maiatzera bitarteko ordainagirietan ordainduko dira.

Jarduerak eskola-eguna amaitu ondoren egingo dira, 16:30etik 18:00etara, eta ordubete edo ordu eta erdiko iraupena izango dute.

Ezin izango da janaririk ekarri jarduerara, ezta bazkaririk ere jarduerarako bidean.

Espero dugu zuen gustukoa izatea eta gure ikasle guztiak haietaz gozatzen ikustea!

ZUEN ZAIN GAUDE!!

URTE OSORAKO EKINTZAK

HAUR HEZKUNTZA

2. ZIKLOA

TXIKI RITMO

Txikienak dantzaren munduan hasi ahal izango dira, erritmoaren eta gorputz-adierazpenaren fusioa eginez. Eskolaz kanpoko ikastaro honen bidez, alderdi emozionala landuko dute, beren sormena eta adierazpen-gaitasuna garatuko dute, koordinazioa eta motrizitatea hobetuko dituzte eta ikaskideekin dituzten harreman pertsonalak garatuko dituzte.



ATLETISMOA




Atletismoaren bidez, neska-mutilek lehen hartu-emanak izango dute hainbat diziplinarekin, hala nola lasterketak, jauziak eta jaurtiketak. Jarduera honi esker, beren gaitasun fisikoak modu dibertigarrian eta beren adinari egokিতuta garatu ahal izango dituzte.

Koordinazioa, arintasuna eta erresistentzia hobetzeaz gain, atletismoak beren burua gaitzen, arauak errespetatzen eta kirolaz ingurune osasuntsu eta positiboan gozatzeko irakatsiko die. Taldeko beste neska-mutilekin harremanak izaten ere ikasiko dute, laguntasuna, ahalegina eta konstantzia bezalako balioak sustatuz.



IRAKURKETA KLUBA



Une batez, abentura, pertsonaia eta irudimenez betetako bidaia batean murgilduko dira ikasleak. Txikienek hitzekin jolasten ikasiko dute eta sormena eta komunikazioa, joko eta jarduera dibertigarrien bidez landuko dute.



URTE OSORAKO EKINTZAK


LEHEN HEZKUNTZA

ETA DBH



SASKI ESKOLA

LH




Kirol honek estrategia, arintasuna eta koordinazioa eskatzen ditu. Horregatik, saskibaloiak gaitasun motorrak, arreta, konpromisoa eta nork bere burua gainditzea hobetzeko balioko die. Hau guztia taldean lan eginez eta kirol honetaz gozatuz baita gero eta gehiago ikasiz.

ROBOTIKA

LH eta DBH

Ikasleengan teknologiarekiko interesa modu desberdin eta dibertigarri batean sustatzeko, ekintza honetan imajina dezaketen guztia programatu eta eraikiko dute, robotika eta bideo-jokoen diseinua lan-tresna gisa erabiliz.



DANTZA MODERNOA

LH



Koreografia desberdinak dantzatzuz gozatzeaz gain, ikasleek haien gorputza ezagutzen eta adierazpide gisa erabiltzen ikasiko dute, koordinazioa eta orientazio espaziala bezalako gaitasun psikomotorrak hobetuko dituzte eta entzute aktiboa, arreta baita memoria koreografikoa hobetuko dituzte.

GIMNASIA ERRITMIKOA

LH 1. 2. 3. 4.



Haurrek haien gorputzarekin komunikatzen, hura erabiltzen eta emozioak adierazten ikasiko dute mugimendu artistikoen eta koreografiaren bidez, hainbat gailu erabiliz. Kirol honetaz gozatzen duten bitartean, koordinazioa, elastikotasuna, irmotasuna eta adiskidetasuna landuko dituzte.




ESKALADA

LH 1. 2. 3. 4.




Eskaladaren mundua ezagutzeko helburuarekin eginda dago ekintza hau. Honetan, oreka, indarra, malgutasuna eta koordinazioa landuko dute. Bai eta autoestima eta lankidetasuna hobetzen, nork bere burua gainditzen eta haien buruarengan konfiantza izaten ikasiko dute ere.



IRAKURKETA KLUBA

LH osoa

Une batez, abentura, pertsonaia eta irudimenez betetako bidaia batean murgilduko dira ikasleak. Txikienek hitzekin jolasten ikasiko dute, sormena eta komunikazioa joko eta jarduera dibertigarrien bidez landuko dute. Hain txikiak ez direnek mota guztietako istorio eta formatuekin lan egingo dute, eta irakurketaz eta idazketaz gozatzen erakutsiko diegu.



ATLETISMOA

LH osoa



Atletismoaren bidez, neska-mutilek lehen hartu-emana izango dute hainbat diziplinarekin, hala nola lasterketak, jauziak eta jaurtiketak. Jarduera honi esker, beren gaitasun fisikoak modu dibertigarrian eta beren adinari egokituta garatu ahal izango dituzte.

Koordinazioa, arintasuna eta erresistentzia hobetzeaz gain, atletismoak beren burua gainditzen, arauak errespetatzen eta kirolaz ingurune osasuntsu eta positiboan gozatzen irakatsiko die. Taldeko beste neska-mutilekin harremanak izaten ere ikasiko dute, laguntasuna, ahalegina eta konstantzia bezalako balioak sustatuz.




XAKE

LH eta DBH



Estrategia-joko honekin lagunekin gozatzeaz gain, pentsamendu matematikoa eta problemak ebazteko gaitasuna garatu eta hobetuko dituzte, eta arreta, memorizazioa, pazientzia eta autokontrola landuko dituzte ere.



ANIMA ZAITEZ!

MILA ESKER